



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 7an

48 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua, Bardeako tiro poligonoak gaur egun hartzen dituen lurak babesteari buruzkoa. Atzera bidalitako Foru Lege proposamena (3. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

C SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Tabakoari buruzko foru plana. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da gardenagoa izan dadin zenbait materialen esportazioa dela-eta (material militar, polizial eta segurtasunekoa). Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen enplegua sustatzeko programa bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefonia mugikorreko antenen instalazioa arautu dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan telefonia mugikorreko antenak jartzearen inguruan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea 2000ko azaroaren 27ko 143. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Bertan eduki batzuk atzeman dira tronpagarriak izan daitezkeenak Botikei buruzko 25/1990 Legearekin eta hau garatzen duen arautegiarekin alderatuz gero.

Batetik segurtasun juridikoa, eta bestetik Foru Komunitateko arautegia eta Estatuak osasunaren eta botiken arloetan dituen eskumenak elkarrekin etortzea lortzeko, komeni da eduki horiek aldatzea, betebeharrak horietara egokitzeko.

TESTU ARTIKULUDUNA

1. artikulua. Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeko 43. artikuluko 2. idatz-zatia, 47. artikuluko 4. idatz-zatiko a) eta b) letrak eta 47. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letra aldatzen dira, bertan aipatzen diren "inportatu" eta "esportatu" aditzak kenduz.

2. artikulua. Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeko 36. artikuluko 11. idatz-zatia eta 47. artikuluko 5. idatz-zatiko i) letra indarrik gabe uzten dira.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Bardeako tiro poligonoak gaur egun hartzen dituen lurak babesteari buruzkoa

ATZERA BIDALITAKO FORU LEGE PROPOSAMENA

Biltzarrak, 2001eko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Bardeako tiro poligonoak gaur egun hartzen dituen lurak babesteari buruzko Foru Lege proposamena atzera bidali dela jakitun dagoela adierazi zuen. Foru lege proposamen hori foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra

andreak aurkeztu zuen eta 2001eko martxoaren 12ko 24 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2001eko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea

erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko martxoaren 27ko 32 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Tabakoari buruzko foru plana

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2001eko apirilaren 27an eginiko bilkuran, Tabakoari buruzko foru plana onetsi zuen. Hona erabaki proposamenak:

1. Planaren zuzendaritza kontseiluan, planean bertan zehaztutako kideez gain, parte hartuko dute sindikatuetako, kontsumitzaile eta erabiltzaile elkarteetako, guraso elkarten federazioko eta ikasleen elkarteetako bi ordezkari, enpresaburu elkarteetako ordezkari batek eta planareki zerikusia duten lanbide elkargoetako, elkarte zientifikoko, fundazioetako eta unibertsitate-mintegietako ordezkari batek.

2. Batzorde exekutiboak, indarraldiko bigarren urtea bukatutakoan, planari buruzko kanpo-ebaluazioa eskatuko du, eta laugarrena bukatutakoan, berriz, bigarren bat, planaren indarraldia bukatutakoan azken ebaluazio batekin osatu ahalko dena.

3. Nafarroako Gobernuak, planak indarra duen aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, tabakoari buruzko foru planeko programa bakoitzerako kontusailak eta plana ebaluatzeko, ikertzeko eta informatzeko

kontusailak ezarriko ditu Osasun Departamentuaren aurrekontuetan, Osasun Publikoko Institutuaren barrenean.

4. 1.- Programa bakoitzaren balioespen ekonomiko zehatz eta mehatza izan beharko du planak.

2.- Erretzeko ohiturari aurrea hartzeari eta tabakoaren arriskuei, ezagutzei eta ondorioei buruzko ikastaroak lanbide curriculumean jasotzea.

3.- Kerik gabeko espazioei buruzko legeria eranstea planari.

4.- Osasun Batzordeari urtero aurkeztuko zaio ebaluazio global bat, non aurreikusitako helburuen eta aurrekontuaren betetze maila jasoko baitira, bai eta zuzendaritza kontseiluak planaren garapena dela-eta egiten duen balioespena ere.

Argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da gardenagoa izan dadin zenbait materialen esportazioa dela-eta (material militar, polizial eta segurtasunekoa)

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 26an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da gardenagoa izan dadin zenbait materialen esportazioa dela-eta (material militar, polizial eta segurtasunekoa)".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da gardenagoa izan dadin zenbait materialen esportazioa dela-eta (material militar, polizial eta segurtasunekoa)

Nafarroako Parlamentuak honako erabaki proposamen hau onetsi du:

1.- Gobernu zentrala premiatzea defentsarako, segurtasunerako eta poliziarentzako material-esportazioen gardentasuna areagotzeko prozesuari euts diezaion, herrialde bakoitzera esportaturiko produktuen berri sei hilabetero emanez eta 1998an onetsi zen Europar Batasuneko jokabide kodea zorrozki aplikatuz. Kode horrek ez du esportaziorik baimentzen uzten kodean bertan zehazturiko irizpide batzuk betetzen ez direnean.

2.- Gobernu zentrala premiatzea Europar Batasunaren esparruan jokabide kode horren aldaketa eta hobekuntza susta dezan, defentsarako, segurtasunerako eta poliziarentzako material-eskualdatzearen gaineko kontrolari dagokionez

dauzkan ahalmen orokorrak gehitzeko; kode horrek arautu behar duen produktu-kopurua handitzeari bultzada emateko, Nazio Batuek 1997an ezarritako definizioari jarraituz eta torturatzeko eta heriotza-zigorra aplikatzeko materiala ere barne hartuz; arma arruntei buruzko Nazio Batuen erregistroko deklaraziorik egiten ez duten herrietarako esportazioak murrizteko; bitartekariei buruzko erregistro bat sortuz horiek kontrolatzeko moduak hobetzeko; lizentzia daukan produkzioaren gaineko kontrolak ezartzeko; eskualdatzeen azken erabilera kontrolatzeko bitarteko eraginkorrak ezartzeko; esportaturiko produktuei, kopuruari, zenbatekoari eta hartzaileei buruzko aipamena txosten bateratuan egiteko; txosten hori urtero argitara dadila bermatzeko; eta Kodea Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundeko herrialde guztietara hedatu dadin sustatzeko.

3.- Gobernu zentrala premiatzea arma arinen ugaritzearen eta kontrolaren arazoa aztertzeko nazioarteko bilguneetan aktiboki parte har dezan, eta gai horretan parlamentuen arteko jarduerak, bereziki Latinoamerikako herrialdeekin, susta ditzan.

4.- Gobernu zentrala premiatzea herrialde edo eskualde zehatzetan arma arinen berrerosteta eta deuseztapena susta dezan, interesa duten gobernuari eta horrelako ekimenak bultzatzen dituzten GKE edo nazioarteko erakundeei dirulaguntzak emanez; bereziki, garapenerako laguntza ofizialaren bitartez.

5.- Gobernu zentrala premiatzea arma arinen ugaritzearen aurka borrokatzeko Europar Batasunaren 1998ko abenduaren 17ko ekintza komuneko gomendioak aplikatuz Gobernuak eginiko jardueren berri sei hilabetero Kongresuari eman diezaion.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen enplegua sustatzeko programa bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 26an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen enplegua sustatzeko programa bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen enplegua sustatzeko programa bat egin dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean

emakumeei zuzenduriko enplegua sustatzeko programa bat presta dezan. Programa hori garatuko da iraupen mugagabeko eta lanaldi osoko edo enpresaren lanaldi arruntaren % 50 baino gutxiagokoa ez den lanaldi partzialako kontratuak formalizatzen dituzten enpresekin lankidetzan arituz.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresaburuekin eta gizarte eragileekin elkarrizketei ekin diezaien 2001-2007rako Nafarroako enplegu plan berri bat egiteko. Horren helburuak dira enpleguaren kalitatea hobetzea, 35 orduko lanaldiaren ezarpena sustatuz, lanen aldi baterakotasuna murriztea, ezgaituen eta iraupen luzeko langabetuen laneratzeara sustatzea eta Nafarroako enpresetan lan istripuen tasa murrizteko neurriak hartzea. Langanbetu horien diagnostiko profesional eta pertsonalak egiteko sistema bat ezarriko da, eta laneratzeko zailtasunik handienak dauzkaten kolektibo horiek laneratzeko plan pertsonalizatuak egingen dira.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefonia mugikorreko antenen instalazioa arautu dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefonia mugikorreko antenen instalazioa arautu dezan".

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, aipatutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2001eko martxoaren 26ko 31 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan telefonia mugikorreko antenak jartzearen inguruan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 26an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan telefonia mugikorreko antenak jartzearen inguruan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan telefonia mugikorreko antenak jartzearen inguruan

1.- Nafarroako Gobernua behar diren neurriak har ditzan premiatzea, azterlan sakon bat egiteko Nafarroan kokaturiko eta eraikin publiko edo pribatuetan eta/edo jendea bizi edo pasatzen den lekuetatik hurbil instalaturiko Telefonia Mugikorreko Oinarrizko Estazio deritzen instalazioek emitituriko erradiazio elektromagnetikoari buruz.

Egin beharreko neurketek potentzia-dentsitateko balioak mikroW/cm²-tan eta/edo eremu elektrikoaren balioak V/M-tan adierazi beharko dituzte, etxebizitzetatik eta haien ondoan dauden zona jendetsuetatik hurbil, eta baita eraikinen barnean ere. Neurketa horiek homologatuak izan beharko dute, eta, beraz, legez baliodunak.

Azterlan hori Osasun Publikoaren Institutuak egin beharko du, eta, behar diren teknikariak ez baditu langileen artean, telefonia mugikorreko operatzaileetan zuzeneko interesa duen inongo konpainiarekin zerikusirik ez duen enpresa edo erakunde batek.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--